

Urko


**Gure herria mendiz inguratuta bada-
go ere ibilalditxo bat burutzeko presta-
tzen garenean ia beti aukeratzen dugu
mendi berbera: Urko; bera da-eta, men-
dia oso aritua ez denarentzat, zailatasun
gutxien ematen diguna. Orrialde hone-
tan ez dizugu beste mendirik proposatu-
ko zure igande goizeko orduak pasatze-
ko, baina oso gutxitan, agian sekulan,
egin ez duzun bidea egitera gonbidatzen
zaitugu.**

Ibilbide honek Santa Ana auzoan hartzen du abiapuntu, bai-
na besteetan bezala, oraingoan
ikastola osteko kaminutik, auzoko
ortuak zeharkatzen hasiko gara.
Menditik jaisten den erreka toan
geure ontziak bete ondoren —Elo-
rretan ez bada, ez dugu urik har-
tzeko beste aukerarik izango— pi-
nudian murgilduko gara atzean
herriko bizitzak sortzen dituen za-
ratak piskanaka lagata. Segituan
gure hasierako bidea aldatuko du-
gu ezkerretara jotzeko. Iri artean

Artarra gainera hubiltzen ga-
ren bitartean etenalditxo bat egin
ahal dugu eskumakaldean dauden
bi haitzulo txiki ikusteko. Harkai-
tzez betetako lurtean gaude, ar-
teak hazteko lekuri aproposenak
eta haitzuloetan aberatsak. He-
mendik, hain zuzen, datorkio
mendiari izena: artarra. Artadia
ezkerrean dugula eta tontorra pa-
satu ondoren (bertan dago Artar-
rai mendi taldeak orain dela urte
piloa egindako buzoitik geratzen
dena) bidegurutze bat aurkituko

dugu. Ezkerrekaldeko bidea har-
tuta, 100 m. egin eta gero gure
ikusmena zorrotz egin behar du-
gu sasiarte dagoen karobi zuloa
topatzeko. Hauxe da gure gaurko
ibilbideko lekuri interesgarriena-
tako eta ezezagunetako bat. Bai-
larako lurak azidotasun maila
handia edukitzean karobia ezin-
bestekoa zen soroak kareaz abe-
rasteke.

Urari lehen tragotxoa eginik
goruntz joko dugu. Atzera be-
pinudiak ipintzen dizkigun ozto-
poak gaintitu egin behar ditugu
aldapa gogor bat igotzen dugun
bitartean. Aldapa hau amaituta-
koan gure inguruan, Ermuan ale-
gia, garai batez erruz ikusten zi-
ren zuhaitz baten kerizpean sar-
tuko gara, pagadi baten keriz-
pean. Paga 30 mtako altura har-
dezakeen zuhaitza dugu. Adarrak
nahiko baju agertzen dira, eta ku-
pula zabala eta borobildua da; ho-
rregatik, hain zuzen, gerizpe han-
dia ematen duen zuhaitza da eta
pagadietan ez da belar berderik
bizitzen.



Elorretako pagadia. Ermuan ere badago bertako basorik.

Ordu erdiren bat oinez daroa-
gula gustora hartuko dugu orain
Elorretara eroango gaituen bidea.
Bide honek Elorreta Behekoa eta
Elorreta Goikoaren artean dagoen
errebeltan lagako gaitu, hemen-
dik Urkoruntz zuzenean abiatze-
ko. Goiko baserria pasatuta eta
harrizko bidea hartuta, bi posibili-
tate dugu gailurreratzeko: Lehe-
nengo bideari jarraituta, Hirumu-
garri eta Urko bitartean dagoen
lepora heltzen gara, eta bigarrena
eskumako pinudia zeharkatuz Ur-
koko barrankoa sartzeko bidean
lagatzen gaituena. Bi puntu haue-
tatik gainera 10 minutu besterik
ez dugu, eta hau izugarritzko bista
gozatze aukera ezinhobe: Oiz,
Durangaldeko mendia, Gorbea,
Udalaitz, Karakate, Izarraitz,

Arrate, Kalamua...

Ermura bueltatzeko Hirumuga-
rrietaruntz joko dugu, Asuntzara-
ko bidean. Oso bide polita da.
Mendiaren malda zeharkatzen ga-
biltza, goikaldean Hirumugarrie-
tako gaina eta behekaldean Bera-
no auzoa lagatzen dugula. Alda-
para zorrotzen hasten denean, ba-
serritarren bordak pasatuta, gure
orientazio ahalmena erabili behar
dugu Markinan ez agertzeko. Ez
da zaila bide zuzena aukeratzea
baina askok, konfidantza larregi-
kin joan direnak, Artibai erreka
bustitzen duen herrian aurkituko
dute euren burua. Izan ere, hone-
gatik ezkerarlderuntz jo behar du-
gu geure jaitsieran, kamioiek pi-
nuak eroateko egin diren eskuma-
kaldeko pista guztiak baztertuz.

Behin Asuntzan, sifoi natural
bat ikusteko aukera izango dugu,
eta baita arestian 3 m.ko altuera
zeukan eta gaur egun gabonetan
etxeak apaintzeko moztuta da-
goen goroztia ere. Barkaezina li-
tzateke Ermura Urkoko kobazu-
loa bisitatu gabe bueltatzea, be-
raz, Beranoruntzko bidea esku-
makaldean lagata eta 10 minutu-
tako bidea egin ostean, Urkoko
kobazuloan egongo gara. Aspal-
dian hemendik ibili ez zaretenok
nekez aurkituko duzue sarrera, le-
hengo bide zaharra pista batek es-
tali du-eta; dena dela merezi du
ahalegintzea. Artez betetako pai-
saian lekutzen dira, Santimamiñe-
koen moduan. Kobazuloan sar-
tzen garen neurrian landareak de-
sagertzen doazela konturatuko
gara, iluntasuna nagusitzen da-ta.
Kobazuloetako tenperatura iraun-
korra da nahiz uda nahiz negu.
Beti 10°-15° Z ingurukoa da, ho-
rregatik hain zuzen erabiltzen zi-
tuzten gaztak gordetzeko (gaztan-
degiak).

Berriro ere Asuntzaruntz buel-
tatu behar gara, Mañe goiko base-
rrietaruntz joan nahi ez badugu. He-
mendik ez dago arazorik Ermura
heltzeko. Berano auzoa pasatuta
Errekalderantz goaz eta handik,
Harrobira heldu baino lehenago,
gure aldizkariari izena ematen
dion iturritik bidean galdutako
ura berreskuratzea ahal dugu. Hona
hemen Drogetenitturik bertatik
ezagutzeko aukera. Anima zaitetz
eta han elkartuko gara.

IBIS

G

aurko

L

iteratura

.

Etxeko
pastelak

Eguneroko

kafe

lasaia

EGOSI